

Atzerrian lurra garratz” antezlanak (Artedrama) Laura Penagos kolonbiarren bizipenak eta hausnarketak ditu abiapuntu. Galderak. Dese-
rriaren eta arrazakeriaren gai-
neko hausnarketak entzungo
ditu, besteak beste, ikusleak
agertokian. Euskaldunon jarre-
raz, garbi dio: «Hemengo era-
kundeetako ordezkariak eta
langileak ere euskal herritarrak
dira, eta haietako askok eta as-
kok oinez oin jarraitzen dute
etorkinak biktima edo borrero
bihurtzen gaituen estatu arra-
zista baten gidaliburua».

**Euskarak ireki dizu Artedra-
marekin lan egiteko atea.**
Jakina baietz, Artedrama plata-
forma eszenikoak euskaraz
egindako antzerkiaren aldeko
apustu irmoa egin du, hau bai-
ta bere lan hizkuntza. Plazer
handia da haiekin lan egitea.
Are gehiago, lasone Paradaren,
Irantzu Azpeitiaren eta Mikel
Unamunzagaren lana miresten
dut, harritzen nau haien lana
kudeatzeko moduak, batez ere
kulturak bizi duen garai zail
honetan; hirurak sortzaileak
dira, haien lana gabe “Atzerrian
lurra garratz” ez litzateke posi-
ble izango. Beti daude hor, gure
alboan, eta hortik intimitate
handia sortzen da, antzezlan

talde lan bihurtzen duena, de-
nok baikara agertoki gainean
egoteaz harago doan sormen
prozesuaren lekuko. Ederra da
lasone Parada ekoizlea bere
mahaian agertoki ondoan lane-
an ikustea; hau Kolonbian pen-
tsaezina izango litzateke. Mikel
Unamunzaga argi eta teknika
lanetan eta Irantzu Azpeitia
Euskal Herrian barrena ema-
naldiak saltzen. Denetarik egi-
ten dute, izugarria da, eta, hala
ere, honek kultur arloak egun
bizi duen prekaritatea islatzen
du.

**Orain arte ez bezala, sorkun-
tzatik lan egiten ari zara.**
Lau urteko antzerki ikasketak

«Amancay
Gaztagaña
zuzendariak nire
unibertso
pertsonala
erabiltzera
gonbidatu ninduen,
eta sortzeko
espazioa eman
zidan. Sentitzen dut
berak giltza
garrantzitsua eman
didala nire lanean
hazteko eta
sorkuntzaren atea
irekitzeko»

egin nituen, eta jaso nuen for-
mazioa teknikoki oso zurruna
izan zen, baina esango nuke
“ofizioa” oso ongi irakatsi zida-
tela. Ofizioa esaten dudanean,
ez dut antzezle “ona” edo “ez
ona” izatea esan nahi, baizik eta
kontua dela agertokira nondik
sartzen naizen, zer egiten du-
dan sartu baino lehen, zer ager-
tokitik atera eta gero, zer harre-
man dudan nire gorputzarekin,
nire ahotsarekin... zer konpro-
miso dudan. Gustatuko litzai-
dake esatea antzerkian aurre-
tik, bitartean eta ondoren
gertatzen den guztia dela ofi-
zioa. Hala ere, konturatu naiz
“Atzerrian lurra garratz”-en
prozesuan hasieran agertoki
gainean antzezle “instrumenta-
la” izan nintzela, eta uste dut
egoera hau egitura oso bertika-
la denean gertatzen dela, zu-
zendariak ez digunean sortzeko
edo ikertzeko espaziorik uzten,
une oro gure lana nola egin be-
har dugun esaten digunean,
baina Amancay Gaztagaña zu-
zendariak nire unibertso per-
tsonala erabiltzera gonbidatu
ninduen, eta sortzeko espazioa
eman zidan. Sentitzen dut be-
rak giltza garrantzitsua eman
didala nire lanean hazteko eta
sorkuntzaren atea irekitzeko.
Bizipen honetan egiaztatu dut
antzezle sortzailea bazara, tek-
nikak, gorputzak, ahotsak eta
buruak sortzeko beste modu
bat dutela antzezle lanean.

**Fikzionatu egin duzue, baina
zure bizipenak eta sentipe-
nak ditu oinarri obrak. Lehen
gidoia zuk idatzi eta Ander Li-
pusi erakutsi zenion. Hari
gustatu, eta aurrera.**
Ikastaro batean ezagutu nuen
Lipus. Elkarrekin proiektu bat
sortzea proposatu nion. Aspal-
di nuen buruan ideia. «Dese-
rriari buruz, arrazakeriari bu-
ruz, emakume izateari buruz



Argazkiak: Iñigo URIZ | FOKU

«Arrazakeria mota asko daude hemen eta leku guztietan, zoritxarrez»

hitz egiteko beharra dut», esan nion. «Horrez gain, ia-ia hamar urte daramat hemen, eta oraindik ezin dut antzerkia profesionalki egin», aipatu nion.

Hasieran neure burua zuzentzeko asmoa nuen, eta Lipusek noizean behin laguntzekoa; orduan berak Kubatik idatzi zidan esateko Joseba Sarrionandiak “Atzerrian lurra garratz” izenburua iradoki ziola, eta gustatuko litzaiokeela Amancay Gaztañagak zuzentzea, bera Ekuadorren jaioa delako, kristoren sentsibilitatea duelako eta, gainera, gai hau emakume baten soilik zuzendu zezakeelako. Amancay Gaztañaga ezagutu nuenean, berehala sentitu nuen berarekin lan egin nahi nuela; bere eskarmentuak, energiak eta maitasunak liluratu ninduten. Ardatza nire testua izan zen, dramaturgia Amancayk proposatu zituen egoeretan oinarritutako inprobisazioetatik sortu zen, eta Miren Amurizak orraztu zuen idatzia.

Hamabi urte daramatzazu gure artean, Iruñean hasieran, Etxarrenen orain. Zenbat izan du gozotik eta garrantzetik zure migrazio prozesuak?

Migrazioa prozesua da, iragan-korra da, ez da betiko. Bizipen ezberdinak bizi izan ditut: batzuk, politikak; beste batzuk, gogorak edo garrantzak. Arrazakeria mota asko daude hemen eta leku guztietan, zoritxarrez. Hasieran, paperak egiteko, arrazakeria instituzionala bizi izan nuen, eta oso sistematikoa da. Gero beti dago begirada bat, keinu bat, hitz bat hemengoa ez zarela gogorarazten dizuna. Okerrena da ez dugula kontzientziarik, eta normala iruditzen zaigula; argia eman behar diogu gure alde ilun honi. Gure pentsamendua deskolonizatu eta desikasi beharra dugu. Gaur

egun, arrazakeriarekin zerikusia duten bi gauza errepikatzen dira behin eta berriz: bat, hemen jaioa ez naizelako, hemen, Euskal Herrian, zer gertatzen den ez dudala ulertzen esatea; eta, bestea, nik euskaraz hitz egiten dudanean, euskaldun batzuek gazteleraz erantzutea.

Bizipen onak ere bizi izan ditut: beste kultura bat ezagutzea, euskara ikastea, harreman berriak egitea, janari ezberdina dastatzea, itsasoa hurbil izatea –ze gure herria Bogota ondoko goi-ordokian eta itsasotik oso urrun baitago–, zenbait euskaldunek euskaraz hitz egiteagatik euskaldun gisa onartzea, eta, batez ere, antzerkia euskaraz egitea; pentsa, Arte-dramarekin egingo dudana bira honek ia-ia Euskal Herri osoa ezagutzeko aukera emango dit.

Atzerrian pausoa ez dela hain irmoa esan nahi du izenburua eman dion XVI. mendeko esaerak. Hala sentitu duzu?

Nik uste dut herri jakinduria islatzen duela. Euskal Herrian historikoki migratzaile izan zarete, eta esango nuke haien bizipenetatik sortua dela esamolde hori. Egia da nik bizitza maite dudala, asko gustatzen zaidala bizitzea, bizitza bizitzeko dela, eta inoiz ez naiz errezeloz ibili ez Kolonbian ez hemen. Jakina, garrantzitsua da moldatzea eta non bizi garen ulertzea. Bizitzak berekin ditu erronkak eta erabakiak hartu beharra leku guztietan, nabaritzen da erosotasunetik ateratzen garenean ziurgabetasunak beldurtzen gaituela. Bizitzan eta geure buruan konfiantza edukitzen ikasi behar dugu.

Zer izan da Euskal Herrira etortzearen gogorrena? Eta ederrena?

Bizipenak hazteko dira, hau da

nire filosofia. Zer izango nintzateke hemen bizi izan ditudan gauza eder guztiak gabe? Zalantzarik gabe, hemen denerarik bizi izan dut, eta eskerrak ematen ditut, zeren hauek erakutsi didate nire bidea. Bizipen hauek neure barnera begirarazi didate, hauek eraman naute kontzientzia hartzera, neure burua ezagutzera. Amodioa eta lagunak ekarri dizkidate, eta, batez ere, hainbeste maite dudana antzerkiaren bidean jarri naute.

Egia da deserriak eta baldintza batzuek ez didatela bizitza erraztu, baina, aldi berean, egun batean nire herria uztea erabaki nuen eta koherentzia eta ardura izan behar dudala sentitzen dut.

Arrazakeria, deserria... mahai gainean jartzen dira antzezlanetan. Euskal herritarrok nola hartzen zaituztegu kanpotik zatotzenak?

Hemen, Euskal Herrian, errealtate ezberdinak daude, munduari begiratzeko forma ezberdinak daude, leku guztietan bezala, eta ni errealtate hauek ibili naiz. Zalantzarik gabe, hemengo erakundeetako ordezkariak eta langileak ere euskal herritarrok dira, eta haietako askok eta askok oinez oin jarraitzen dute etorkinak biktimaredo borrarero bihurtzen gaituen estatu arrazista baten gidaliburua. Gaia oso sakona da, geruza asko ditu. Bestetik, bere besoak zabaldu dizkidaten pertsona maitagarriak eta atseginak aurkitu ditut. Izan ere, gaur egun hemen familia handia dudala esan dezaket, eta horrek pozten nau eta sustraiak eta lurra ematen dizkit.

«Noiz arte naiz atzerritar?» galderak tokia du antzezlanetan. Nola sentitzen zara etor-

LAURA PENAGOS

AKTOREA

Pozarren dago Laura Penagos. Aspaldiko

nahia betetzeko aukera eskaini dio

Artedramak, euskaraz lan egitekoa.

Agertokiz agertoki, Euskal Herria

ezagutzen ari da, gainera.

Xole Aramendi Alkorta

kin deitzen dizutenean?

Zer da hemengo izatea? Zer da kanpoko izatea? Zer da migra-tzaile izatea? Nola hitz egin norberarenaz? Nola hitz egin besteenaz? Aspaldi ez dit axola jendeak nola deitu nahi didan; garrantzitsua ni nola sentitzen naizen da, eta gaur egun euskaldun sentitzen naiz. Oro har, etiketek aspertzen naute, auke-raz betetako mundu batean preso bihurtzen zaituztelako. Izenak, abizenak, paperak, mu-gak, harresiak, beltza, zuria, ez-kerra, eskuina, goia, behea, ipa-rra, hegoa... mundua mugaz beteta dago gure burua mugaz beteta dagoelako. Nik uste dut egoera hau aprobetxatu behar dugula; jendarte berria behar dugu, elkarrekin sortzaile izan-go garen jendarte, gure talen-tuak garatzeko aukera emango diguna, betiere mundu honeta-ko iragatean dugun erantzuki-zuna aintzat hartuz.

Euskara ikastea pentsatu ze-nuen Kolonbiako zure etxe-an, lehen aldiz entzun zenue-nean. Zerk erakarri zintuen?

Bi euskaldun ezagutu nituen, gurekin gazteleraz hitz egiten zuten, baina berehala konturatu nintzen haien artean beste hiz-kuntza batean hitz egiten zute-la. Euskara entzun nuenean, zerbait sentitu nuen plexu sola-rrean; bai, zur eta lur geratu nintzen. Neure buruari galdetu nion zer ote zen. Orduan, ea zer hizkuntza zen galdetu nien, eta haiek euskara zela erantzun zi-daten. Euskarak liluratu nin-duen, zerbait sekretua zirudien, lurrean jaio eta azalera ateratze-an haizeak indarrez bultzatzen eta zabaltzen duen zerbait. Energia boteretsua sentitu nuen, esango nuke arbasoen energia sentitu nuela, eta ho-rrek bihotzean gainezka egin zi-dan.



Iruñera ailegatu eta ikasten hasi zinenean, negar malko-ak ere bota zenituen. Gero, berriz hasi zinen, baina orain diozu ez dela hain zaila. “Ilargi”, “eguzki”, “zeru”, “izar”, “lore” hitzak eta zenbaki batzuk ikasi nituen Kolonbian. Hemen, euskaltegira joan nintzen eus-kara ikastera, eta lehen urratsa zorigaiztokoa izan zen. Klasea bukatu eta gero frustrazio han-dia sentitzen nuen, ez nuelako ezer ulertzen; noizean behin negar egiten nuen, alproja sen-

titzen nintzen; gainera, klasean bazen oinarri bat zuen jendea, eta horrek oso urduri jartzen ninduen, ezin bainintzen beste-ekin komunikatu. Hainbat aldiz entzun nuen euskara oso zaila dela dioen mantra, hainbat al-diz errepikatu nion neure bu-ruari, eta, azkenean, bigarren urratsa hasi eta utzi egin nuen. Denborarekin konturatu nin-tzen hizkuntza ez dela zaila, be-netan zaila hitz egiteko aukerak aurkitzea dela, akatsik gabe hitz egitea dela, benetan zaila seku-

la ez saiatzea dela, eta ikasteari ekin nion berriro.

Kolonialismoak zuen hiz-kuntza (chibcha) desagerrara-zi zuen, eta horrek piztu zi-zun hizkuntza gutxituekiko sentsibilitatea.

Zer desagertzen da hizkuntza bat desagertzen denean? Zer da lurralde bat? Zer da memoria? Zer da ahanztura? Zertarako oroitu? Lur honek indarra eta argia eman dizkit neure burua-ri galderak egiteko.

Hemen egonda, aurrez aurre ikus dezaket Kolonbia, artifizio-rik gabe, baina beldurrez bete-ta. Orduan, hutsa besterik ez nuen aurkitu. Hala ere, Teseo-ren alaba bezala, labirintoan barnerratu nintzen, baina ez ihes egiteko, minotauroa garai-tzeko baizik. Bai, gure hizkun-tza, chibcha, desagerrarazi zu-ten, eta hutsunea hain da handia, ezen oraindik ez baika-ra jabetu ardura horretaz. Gaur egun, mundu globalizatu eta homogeneo honetan, miraria dirudi hizkuntza txiki batek bi-zirautea. Horregatik maite dut euskara, eta hizkuntza gutxia-gotuak miresten ditut.

«Ez dut sentitzen asimilazioa denik euskara ikastea, hau nire aukera da, kontzientea», diozu. Beste migratzaileen ar-tean uste hori al dago?

Zorionez, euskaraz hitz egiten dugun “kanpotarrak” asimila-tuak gaudela entzutea tokatu izan zait, eta zorionez esan dut, zeren uste horrek nire bihotzari argia eta kontzientzia ematen dizkio euskaraz hitz egiteko eta euskal kultura maitatzeko. Nire bizipenean inoiz ez da izan in-posaketa, eta zentzu horretan arreta handia jarri dut, lehen ai-patu bezala, gure herrian arba-soak hustu baitzituzten. Egia da chibcha, aimara, kitxua, eta abar hitz egitea gustatuko litzai-dakeela, baina hemen bizi naiz, eta bihotzetik eta maitasunetik euskaraz hitz egitea erabaki dut. Emakume mestizoa naiz, esan dezagun “migratzailea”, ez dut pribilegiorik, baina ez naiz bikti-ma, eta koherentziaz bizitzen saiatzen naiz. Kolonbiarra naiz, beti izango naiz, baina egun ba-tean ez naiz kolonbiar sentitu-ko, eta uste dut zilegi dela. Ez dut inor konbentzitu nahi. Mundua horrela sentitzen dut, besterik ez.